



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

## **2016KO URRIAREN 14AN TOKIKO GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILKURA**

### **Etorri diren batzordekideak:**

**Mikel Agirrezabala Ezkurdia**  
**Jesus Peñagarikano Labaka**  
**Miren Itziar Arratibel Imaz**

### **Etorri diren zinegotziak:**

Arkaitz Fraile Quijera  
Victoria Rodriguez Feloaga  
Juan Luis Cid Conde

**Idazkaria:** Naia Ruiz de Eguino Garcia-Echave

Ibarran 2016ko urriaren 14an udaletxeko bilera-aretoan, goizeko hamaikak direnean Tokiko Gobernu batzarrak bilera egin zuen eta alboan adierazitako jaun-andreak elkartu ziren ohiko bilkura egiteko asmoz, horretarako deituta baitzeuden

Egintzaren buru Mikel Agirrezabala Ezkurdia Alkate izan zen eta Bitarteko Idazkari lanetan Naia Ruiz de Eguino

Udalburuak egintza ireki dela adierazi ondoren, bilkura honetarako ditugun gaiak aztertu eta eztabaidatu dira eta honako erabaki hauek hartu dira

## **LEHENA:**

### **1.2016KO IRAILAREN 29KO AKTAREN ONARPENA**

2016ko irailaren 29an eginiko Gobernu batzarraren akta irakurri ondoren, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

### **ERABAKIA**

**BAKARRA:** Onartzea 2016ko irailaren 29an eginiko Gobernu Batzarraren akta



IBARRAKO UDALA  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

## **BIGARRENA:**

### **2.- 2016 URRIAK 5EAN BURUTURIKO KULTURA ETA GAZTERIA BATZORDEAREN IRIZPENEN ONARPENA**

#### **2.1 IBARRAKO KULTUR TALDE ETA ELKARTEEI 2016 URTERAKO DIRULAGUNTZAK EMATEA.**

2016ko ekainaren 28ko 122. GAOn Ibarra irabazi-asmorik gabeko kultura talde eta elkarteei 2016. urtean garatuko dituzten jarduera eta egitarauetarako diru-laguntzak emateko oinarriak argitaratu ziren. Diru-laguntza eskaerak aurkezteko epea uztailaren 28an amaitu zen.

2016ko urriaren 5ean buruturiko Kultura eta Gazteria Batzordearen irizpena kontutan izanik, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

#### ERABAKIA

LEHENA: Onartzea 2016 urterako Ibarra irabazi-asmo gabeko kultura talde eta elkarteei honako diru-laguntza hauek ematea

#### **1.- Deialdira aurkeztu diren Ibarra kultura talde eta elkarteei honako diru-laguntzak ematea:**

- o ***Urteko programazioa gauzatzeko diru-laguntzak:***

TALDEA	2016	60%	40%
PARROKIKO KORUA	900,00 €	540,00 €	360,00 €
HAUSPIBARRA	8.700,00 €	5.220,00 €	3.480,00 €
ALURR DANTZA TALDEA	8.000,00 €	4.800,00 €	3.200,00 €
<b>GUZTIRA</b>	<b>17.600,00 €</b>	<b>10.560,00 €</b>	<b>7.040,00 €</b>

*Orain laguntzaren %60a jasoko da eta 2017ko otsailaren 24a baino lehen laguntzaren %100a zuritu beharko da, horretarako, 2016ko ekainaren 28an 122. GAOn. Argitaratutako "Ibarra irabazi-asmorik gabeko kultura talde eta*



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

**elkarteei 2016. urtean garatuko dituzten jarduera eta egitarauetarako diru-laguntzak emateko oinarriak**” oinarrietan diru-laguntzak zuritzeko ezarritako betekizunak bete beharko dira. Batzordeak justifikazioari onespena emandakoan, geratzen den laguntzaren % 40a ordainduko da. Era berean, talde guztiei jakinarazten zaie udaleko armarrria agertu behar dela egiten diren ohar eta kartel guztietan.

- **Kultur jarduera zehatzak gauzatzeko diru-laguntzak:**

TALDEA	JARDUERA	2016
IBARRA KIROL ELKARTEA-SOCIEDAD DEPORTIVA IBARRA	Elkartearen 50. urteurreneko ospakizunak (urriak 27-30)	2.400,00 €
<b>GUZTIRA</b>		<b>2.400,00 €</b>

Orain laguntza osoa jasoko da eta jarduera burutu ondoreneko 45 egun naturaletako epean, abenduaren 14erako hain zuzen ere, zuritu beharko da, horretarako, 2016ko ekainaren 28an 122. GAOn. Argitaratutako “Ibarrako irabazi-asmorik gabeko kultura talde eta elkarteei 2016. urtean garatuko dituzten jarduera eta egitarauetarako diru-laguntzak emateko oinarriak” oinarrietan diru-laguntzak zuritzeko ezarritako betekizunak bete beharko dira. Era berean, talde guztiei jakinarazten zaie udaleko armarrria agertu behar dela egiten diren ohar eta kartel guztietan.

- **Piparraren sustapenerako diru-laguntzak:**

TALDEA	JARDUERA	2016
HAUSPIBARRA KULTUR ELKARTEA	Ezpeletako biper festan Ibarrako piparra (urriak 29-30).	2.000,00 €
<b>GUZTIRA</b>		<b>2.000,00 €</b>

Orain laguntza osoa jasoko da eta jarduera burutu ondoreneko 45 egun naturaletako epean, abenduaren 14erako hain zuzen ere, zuritu beharko da, horretarako, 2016ko



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

ekainaren 28an 122. GAOn. Argitaratutako **“Ibarrako irabazi-asmorik gabeko kultura talde eta elkarteei 2016. urtean garatuko dituzten jarduera eta egitarauetarako diru-laguntzak emateko oinarriak”** oinarrietan diru-laguntzak zurrizko ezarritako betekizunak bete beharko dira. Era berean, talde guztiei jakinarazten zaie udaleko armarrria agertu behar dela egiten diren ohar eta kartel guztietan.

- **Azkueko dantza lokalaren mantenurako diru-laguntzak:**

TALDEA	2016	60%	40%
<b>Alurr Dantza Taldea: Azkueko lokala diru-laguntza</b>	2.000,00 €	1.200,00 €	800,00 €
<b>GUZTIRA</b>			

Orain laguntzaren %60a jasoko da eta 2017ko otsailaren 24a baino lehen laguntzaren %100a zurriz beharko da, horretarako, 2016ko ekainaren 28an 122. GAOn. Argitaratutako **“Ibarrako irabazi-asmorik gabeko kultura talde eta elkarteei 2016. urtean garatuko dituzten jarduera eta egitarauetarako diru-laguntzak emateko oinarriak”** oinarrietan diru-laguntzak zurrizko ezarritako betekizunak bete beharko dira. Batzordeak justifikazioari onespina emandakoan, geratzen den laguntzaren % 40a ordainduko da. Era berean, talde guztiei jakinarazten zaie udaleko armarrria agertu behar dela egiten diren ohar eta kartel guztietan.

**BIGARRENA:** Ibarrako kultur elkarte eta taldeei dagokien urteko programazioa garatzeko guztirako diru-laguntzen 17.600,00 euroko gastua eta kultur jarduera zehatzak gauzatzeko diru-laguntzen 2.400,00 euroko gastua 1.0000.430.334.00.00 2016 “Kultur taldeei transferentziak” kontu-sailari egozte.

**HIRUGARRENA:** Piparraren sustapenari dagokion diru-laguntzaren 2.000,00 euroko gastua 1 0000.430.414.00.02 2016 “Piparraren sustapena transferentziak” kontu-sailari egozte.

**LAUGARRENA:** Dantza lokalaren mantenuari dagokion diru-laguntzaren 2.000,00 euroko gastua 1.0000.434.334.20.00 2016 “Dantza hitzarmena transferentzia” kontu-sailari egozte.

**BOSGARRENA:** Erabaki honen berri eman Kontuhartzailletza sailari, eskatzailei eta Ibarrako web orrialdean argitaratuko da.



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

## **2.2 BELAUNTZAKO MUSIKA LOKALAK.**

Belauntzako musika entseguetarako udal lokalen hiru hileko erabileraren kontrola egin ostean (ekaina-iraila), Kultura eta Gazteria teknikariak egindako txostenean jasotzen denaren baitan, Udalaren baimenik gabe “Gargantas desgarradas” eta “Deposito” taldeek erabiltzen duten lokalean (1. lokala) metalezko estruktura bat muntatu eta paretara lotu dutela ikusi da.

Era berean, aipatutako epealdian “Gargantas Desgarradas” taldeak lokala ordutegiz kanpo erabili duela ikusi da.

Guztia dela eta, Kultura Batzordeburuak horrela aginduta, irailaren 23an, “Gargantas desgarradas” taldeari dagozkion 2 giltza elektronikoak blokeatu zitzaizkion, Udal entsegu lokalen erabilera erregulatzen duen araudiaren honako artikuluei jarraiki: 5.10, 6.1 eta 6.4.

Udal entsegu lokaletara sarbidea behin-behinekoz ukatuta dutelarik, “Gargantas desgarradas” taldeak irailaren 28an muntatutako estruktura mantentzeko eskaera aurkeztu dio Udalari.

2016ko urriaren 5ean buruturiko Kultura eta Gazteria Batzordearen irizpena kontutan izanik, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

### **ERABAKIA**

**LEHENA:** Belauntzako musika entseguetarako 1. udal lokalean “Gargantas Desgarradas” taldeak jadanik ezker paretan jarri duen estruktura soilik baimentzea.

**BIGARRENA:** Lokalean biltegitratuta dagoen gainontzeko metalezko estruktura debekatzea, eta ondorioz, “Gargantas Desgarradas” taldeari lokaletik kanpo atera beharko duela jakinaraztea. Erabaki hau jaso eta astebeteko epean (egun naturalak) kanporatu beharko dute metalezko estruktura.

**HIRUGARRENA:** “Gargantas Desgarradas” taldearen giltza elektronikoak berriro aktibatzea metalezko estruktura atera dezaten. Erabakian baldintzak bete beharko dituzte, ostantzean giltza desaktibatuko da.

**LAUGARRENA:** Erabaki honen berri eman Gargantas Desgarradas taldeari.



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

## **2.3 AZKUE AUZOKO JAIETARAKO EGITARAU ETA AURREKONTUAREN**

### **ONARPENA**

2016 urterako Azkue auzoan egingo diren jaietarako egitarau eta aurrekontua aurkezten du Kultura eta Gazteria Batzordeak, Tokiko Gobernu Batzordeak onar dezan.

2016ko urriaren 5ean buruturiko Kultura eta Gazteria Batzordearen irizpena kontutan izanik, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

### **ERABAKIA**

LEHENA: Onartzea Azkue auzoko jaietarako Kultura eta Gazteria Batzordeak aurkeztutako egitarau eta aurrekontua. Honakoa izanik:

1.- Urriaren 15ean ospatuko den eta jarraian zehazten den V. Azku eguneko jai-egitaraua onartzea:

Urriak 15, larunbata.

11:00: TXUPINAZOA Azkuko errotondan.

Ondoren: Auzoko musikariekin KALEJIRA buruhandiekin Azkuko plazarantz.

11:15: HAUR JOLAS KOOPERATIBOAK.

12:00: TOKA + PINTXO POTEA

13:00: APERITIFF MUSIKATUA: ZIRIBULIO SOUND.

14:00: BAZKARIA.

16:00: BINGO!!!

17:00: GAZTETXULON ESKULANAK.

17:30: "PITUXA KLOWN KONTARI" ikuskizuna Gaztetxulon.

19:00: KONTZERTUA: ERRUKIRIK GABE eta OZTOPO

20:30: JAI BUKAERA eta GARBIKETA AUZOLANEAN.

2.- Urriaren 15ean ospatuko den eta jarraian zehazten den V. Azku eguneko aurrekontuaren aurreikuspena onartzea:



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

<b>kontzeptua</b>	<b>kopurua</b>
2 paellera + ontzien alokairua	100,00 €
Suziriak	40,00 €
Apaingarriak	150,00 €
jolasak +sariak	260,00 €
komunikazioa	150,00 €
Soinu ekipoa + musika taldeentzat	800,00 €
Ikuskizuna	500,00 €
<b>guztira gastuak 2.000,00 €</b>	

BIGARRENA: V. Azku eguneko gastuak 1 0000.226.338.30.06 2016 Azkue auzoko jaiak kontu-sailari egozteak.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri eman Kontuhartzailatza sailari.

### **HIRUGARRENA:**

### **3. 2016KO URRIAREN 6AN BURUTURIKO KIROL BATZORDEAREN IRIZPENEN ONARPENA**

#### **3.1 2016 URTERAKO KIROL ARLOAN IBARRAKO UDALAK DIRU LAGUNTZAK EMATEA**

Ikusita, 2016ko ekainaren 15ean egindako Kirol batzordeak Kirol arloko diru laguntzak arautzen dituzten oinarriak onartu zituela.

Ikusita, epea ireki eta honako diru-laguntza eskaerak eta diru-kopuruak aurkeztu direla:

#### A. Urteko jarduerak:

Sendi ekintza pilota eskola	4.109,00 €
Gimnasia Erritmikoa Belabieta Kirol Kluba	3.500 €
Sokatira taldea:	16.000 €
Lauburu Kirol Elkarteak	32.000 €

#### B. Jarduera puntualak:



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

Lokatzetan Kirol taldea: Mendi duatloia	1.800 €
Lokatzetan Kirol Taldea: Rider	1.500 €
Sokatira taldea: Euskadiko 8X8 goma gainean	700 €

Ikusita, Kirol diru-laguntzetarako dira partidan 42.700 euro daudela.

2016ko urriaren 6an buruturiko Kirol Batzordearen irizpena kontutan izanik, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

### ERABAKIA

LEHENA: Onartzea, Ibarra Udalak, 2016 urterako Kirol arloan honako diru-laguntza hauek ematea

Sendi ekintza pilota eskola	4.109,00 €
Gimnasia Erritmikoa Belabieta Kirol Kluba	3.500 €
Sokatira taldea:	10.391 €
Lauburu Kirol Elkarte	26.000 €
Lokatzetan Kirol taldea: Mendi duatloia	1.800 €
Lokatzetan Kirol Taldea: Rider	1.500 €
Sokatira taldea: Euskadiko 8X8 goma gainean	700 €

BIGARRENA: Diru-laguntza hauek 2016 urteko aurrekontuko 430.341.00.00 partidatik ordainduko dira.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri eman eskatzaileei eta Kontuhartzaitza sailari

LAUGARRENA: Erabaki hau Ibarra web orrialdean argitaratuko da.

### **LAUGARRENA:**

### **4. 2016KO ABUZTUAREN 22AN BURUTURIKO PERTSONAL BATZORDEAREN IRIZPIDEEN INGURUAN HARTURIKO ERABAKIAK**





IBARRAKO UDALA  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

#### **4.1 NEKANE AZURMENDI ETXEGARAY LANGILEAREN ESKAERA: 2012KO ABENDUKO APARTEKO ORDAINKETA INGURUAN**

Ikusi da Nekane Azurmendik 2016ko uztailaren 13an aurkeztu zuen eskaera

Eskatzen du onartzea 2012ko abenduko aparteko ordainsari osoa, eta ordaintzea ordainsari horren %49,73, hori baita ordaindu gabe daukan zatia. Baita ere eskatzen du 2012ko eta 2013ko soldataren %2,9 igoerari dagokion ordainsaria.

Ikusirik urriaren 29ko, 48/2015 Legea, 2016ko Estatuko Aurrekontu Orokorrak onartu zituenak 12. Artikulu gehigarrian zehaztutakoa.

Ikusirik 2015eko maiatzaren 21eko, 113/2015 alkate dekretu bidez erabaki zela ez ordaintzea 2012ko eta 2013ko soldataren %2.9 igoerari dagokion ordainsaria.

2016ko abuztuaren 22an buruturiko Pertsonal Batzordearen irizpena kontutan izanik, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

#### **ERABAKIA**

LEHENA: Ordaintzea Nekane Azurmendiri 2012ko aparteko ordainsariaren %49,73, urriaren 29ko, 48/2015 Legeak, 2016ko Estatuko Aurrekontu Orokorrak onartu zituenak 12. Artikulu gehigarrian dioena jarraituz.

BIGARRENA: : Jakinaraztea erabaki hau Nekane Azurmendiri eta Kontuhartzailletza sailari.

#### **4.2 JON IJURKO ESNAOLA LANGILEAREN ESKAERA: ORDUEN SALDOAREN ALDAKETAREN INGURUKOA**

Ikusi da Jon Ijurko Esnaolak aurkeztutako eskaera.

##### 1) 2015ko saldoa:

Bertan eskatzen du 2015eko abenduko saldoak, bai aparteko orduena, bai saldo arruntarena aldatzea, "zero" saldotik 3:24ra aparteko orduen kasuan, eta "zero" saldotik 00:59ra saldo arruntaren kasuan.



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

Urte bukaeran ezin izan zituela likidatu, hauteskundeak zirela eta lanera etorri behar izan zuelako.

2) 2016ko otsaileko saldoa:

Otsailan iñauteriak zirela eta 3 ordu eta 38 minutu lan egin zituen arratsaldean seinale informatiboak jarri behar zituelako Idoiaga kalean. Bere eskaeran aparteko orduak bezala kontatzea eskatu zuen baina ez zen horrela onartu eta saldoan konputatu zen. Hilabetea amaitzean zegoen eta ez zuen kitatzeko aukera eduki.

Eskatzen du edo aparteko orduak bezala edo saldoan berreskuratzea.

2016ko abuztuaren 22an buruturiko Pertsonal Batzordearen irizpena kontutan izanik, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

#### ERABAKIA

LEHENA: Ez onartzea 2015ko abenduaren aparteko orduen eta saldo arruntaren saldoen aldaketa.

BIGARRENA: Onartzea 2016ko otsailaren saldoa aldatzea eta lan egindako 3 ordu eta 38 minutuak kontuan hartzea. Abuztuko saldoari gehituko zaio ordu kopuru hau eta azaroan kitatu beharko ditu.

HIRUGARRENA: Jakinaraztea erabaki hau Jon Ijurko Esnaolari.

#### **4.3 ORDUTEGIAREN KONTROLAREN INGURUKO ERABAKIAK**

##### **4.3.1 Medikutara joateko baimenak**

Medikutara joateko baimena eskaerak direla eta Udalhitzen 59.1 artikulua kontuan hartuta.

2016ko abuztuaren 22an buruturiko Pertsonal Batzordearen irizpena kontutan izanik, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

#### ERABAKIA



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

LEHENA: Jakinaraztea udal langileei, eskubidea dutela lanaldiaren barruan medikuak agindutako kontsultetara, tratamenduetara eta azterketara joateko, beti ere joan beharreko osasun-zentroek lanalditik kanpo joateko aukerarik eskaintzen ez badute.

BIGARRENA: Jakinaraztea udal langileei medikutara joan aurretik eskaera egin behar dutela adieraziz bai eguna eta baita kontsultaren ordua ere.

#### **4.3.2 Obrako lantaldeko langileen markaketa eza penalizazioaren aldaketa**

2016ko apirilaren 22an egindako Tokiko Gobernu Batzordean erabaki zen Brigadako lantaldearen derrigorrezko presentzia 8:00etatik 13:00etara ezartzea.

Hori horrela, markaketa ezen penalizazioa ere aldatzea egoki ikusten da.

2016ko abuztuaren 22an buruturiko Pertsonal Batzordearen irizpena kontutan izanik, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

#### **ERABAKIA**

LEHENA: Obrako lantaldeko langileen markaketa ezak honela penalizatzea:

- Sarrera falta denean: 8:00 jarriko da
- Irteera falta denean: 13:00 jarriko da

BIGARRENA: Erabaki honen berri eman langileei eta araudia aldatzea erabaki honetara egokituz.

#### **BOSGARRENA:**

#### **5. 2016KO IRAILAREN 23KO ETA 2016KO URRIAREN 10EAN BURUTURIKO HIRIGINTZA BATZORDEKO IRIZPIDEEN INGURUKO ERABAKIAK**

#### **5.1 EUSKALERRIA 63KO BEHEAN ERDISOTOA HABILITATZEKO KONTSULTAREN INGURUKO ERABAKIA**

Luis Angel Etxaburua Tejeriak Euskalerrria 63ko eraikineko behealdean eta eraikinaren inguruan, lurzoru pribatuan, obrak egin nahi ditu etxe azpian garaje edo biltegirako espazioa gaitzeko.

Kontsultarekin 1990 urtean obra horiek egiteko udalak emandako udal lizentzia, lokalaren hiri ondasun higiezinaren gaineko zergaren ordainketaren agiria, eta aparejadore batek egindako proiektuaren zatia aurkeztu ditu.



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

Udal arkitektoak egindako lehen txostenean arkitekto batek sinaturiko azterketa eta ziurtagiria aurkeztea eskatu zuen batetik erdisotoen eraikigarritasuna justifikatzeko eta egituran izan zezakeen eragina aztertzeko.

Uztailaren 26ean Javier Telleria Elorz arkitektoak sinaturiko txosten justifikatiboa aurkeztu du.

2016ko irailaren 23an buruturiko Hirigintza Batzordearen irizpena kontutan izanik, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

## ERABAKIA

**LEHENA:** Kotsultari aldeko erantzuna ematea Euskalerrria 63 ko erdisotoan 2,05 mko altuera librea gutxienez izango duten garajeetako lokala habilitatzeko. Lokalak eta ingurunea egokitzeko beharrezkoak diren obrak egiteko dagokion obra lizentzia eskatu beharko da udalean eta obra proiektuan zehatuko dira espaloitik eraikinaren sarreretaraino egin behar diren egokitze lanak.

**BIGARRENA:** Erabakia jakinaraztea Luis Angel Etxaburua Tejeriari.

### **5.2 IZASKUNGO BIDEA ZABALTZEKO OBREN KONTRATU TXIKIAREN ESLEIPENA**

Ibarrako udalak 2016ko aurrekontuetan partida bat onartu zuen Ibarrako bideen inbentarioan 09. Zenbakiarekin jasotzen den Izaskungo bidea Ibarburuondo eta Ibarburubide baserrien artean dagoen errepide kurba arriskutsua zabaltzeko.

Lan horiek egiteko Gipuzkoako Foru Aldundiak diru-laguntza eman dio Ibarrako udalari. Diru-laguntzen ebazpena 2016ko maiatzaren 9an argitaratu zen.

2016ko irailaren 30ean Ibarrako udalbatzak errepidea zabaltzeko Kamiñoazpi partzelaren zati bat okupatzeko hitzarmena sinatzea onartu zuen lursailaren jabea den Francisca Zalacain Esnaolarekin.

Alderdien arteko hitzarmena, 2016ko urriaren 13an sinatu zen.

Obra proiektua Eraikin ingenieritza enpresak egin du.

Orain obra horiek gauzatu ahal izateko obra esleitu behar du udalak.



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

Kontratua 50.000 eurora iristen ez denez, kontratu txikiaren prozedura bitartez izapidetu da eta horrelako lanetan esperientzia duten inguruko lau enpresari eskatu zaie eskaintza egitea.

Gonbidapenarekin batera eskaintzarako beharrezkoa den dokumentazio teknikoa bidali zaie eta obra kontratuaren baldintza bereziak jakinarazi .

Hona hemen enpresek egindako eskaintza ekonomikoa.

enpresa	Eskaintza ekonomikoa
EXCAVACIONES Y TRANS. ORUEZABAL	40.799, 15 €
EXCAVACIONES PERU SL	34.408,77 €
EXCAVACIONES UNDIARTE, S.L	EZ DA AURKEZTU
CONSTRUCCIONES ECHAIDE	45.523,05 €

Kontuan hartuta hiru aurrekontuen artean merkeena Excavaciones Peru SL enpresak egindakoa dela, guztira 34.408,77 euroko zenbatekoagatik, BEZ barne.

Kontuan hartuta Ibarra Udalak zenbateko hori 1 0000 601 153 20 04 2016 aurrekontu partidatik finantzatu dezakeela.

2016ko urriaren 10ean buruturiko Hirigintza Batzordearen irizpena kontutan izanik, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

## ERABAKIA

LEHENA: Esleitzea Excavaciones Peru SL enpresari 09 Izaskunerako bidean zabaltze lanak egiteko obra, guztira 34.408,77 € euroko zenbatekoagatik, BEZ barne, ondorengo baldintzekin.

Obraren kontratuaren baldintza bereziak hauek dira:

-Kontratuaren esleipendunak, hartutako konpromisoak beteko dituela bermatzeko, behin betiko bermea eman beharko du. Berme hori kontratuaren esleipen zenbatekoaren % 5a izango da, BEZa kenduta (1.421,85 EURO).

-Lanak azaroaren 18a baino lehen amaitu edo justifikatu beharko dira.



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

-Kontratatistak betelaneen lur aukeratutakoaren ezaugarriak obran zehar proben bidez proiektuan zehazturiko baldintzak betetzen dituela ziurtatuko du.

BIGARRENA: Erabaki honen berri kontuhartzaitzari ematea.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri eskaintza aurkeztu duten enpresei jakinaraztea

### **5.3 APATTAKO C1 ETA C2 LURSAILEN LURZORUAREN KALITATEARI BURUZKO ADIERAZPEN EBAZPENARI BURUZKO UDALAREN IRIZPIDEAK.**

Ikusi da Apattako C1 eta C2 lursailen lurzoruaren kalitateari buruzko Ingurumen Administrazioaren zuzendariak bidalitako adierazpen ebazpen proposamena ( SC-94/13-IB expedientea.) 2016ko irailaren 26an (sarrera zenbakia 1726).

2016ko urriaren 10ean buruturiko Hirigintza Batzordearen irizpena kontutan izanik, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

#### **ERABAKIA**

LEHENA: Apattako C1 eta C2 lursailen lurzoruaren kalitateari buruzko adierazpenaren Ebazpen proposamenari ez irizpiderik egitea.

BIGARRENA: Erabakia Eusko Jaurlaritzako ingurumen eta lurralde politika saileko Ingurumen Administrazioaren zuzendariari jakinaraztea.

### **SEIGARRENA:**

### **6. 2016KO URRIAREN 10EAN BURUTURIKO INGURUMEN, MERKATARITZA ETA NEKAZARITZA BATZORDEKO IRIZPIDEEN INGURUKO ERABAKIAK**

#### **6.1 EGUBERRIETAKO APAINGARRI IRAUNKORRETARAKO AURREKONTUAREN ONARPENA**

Urte batzuk dira Uzturpe Ikastolako ikasleek egindako apaingarri iraunkorrak ezarri ohi direla herriko kale ezberdinetan: Ibarra sarreran, anbulatorio sarreran, Euskal Herria kalean, San Inazio auzoan, San Bartolome plazan,...

Ekimen honek bat egiten du eskualde mailan, EA21ren baitan, Tolosako Ingurumen Zentroak (TIZ) urtero proposatzen duen ekintzarekin.



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

Herriko merkatarik elkarteko kideek ere euren dendatako erakusleihatetan jarri ohi dituzte Uzturpeko ikasleek egindako apaingarri iraunkor horiek. 2015 urtean, ordea, merkatarik elkartetik iradokizun bat iritsi zitzaion ingurumen, merkataritza eta nekazaritza teknikariari: Euskal Herria kalearen hasiera pobre eta triste geratu zela eta kaleak ez zuela erosketak egitera erakartzen.

Kontuan hartuta merkatarik elkartearen iradokizuna, Ibarra Udalak ahalegin berezia egin nahi du 2016ko eguberrietan. Hori dela eta, ingurumen, merkataritza eta nekazaritza teknikariak arlo horretan lan egiten duten bi aholkularitzei aurrekontua eskatu die 2016ko irailaren 14an, Arazi eta Artelatz.

Kontuan hartuta soilik Arazik aurkeztu duela bere proposamena, 2016ko irailaren 26an ingurumen, merkataritza eta nekazaritza teknikariarekin eta zinegotziarekin bildu ostean, guztira 3.529,38 euroko zenbatekoagatik, BEZ barne.

Kontuan hartuta Arazik esperientzia zabala duela eguberrietako apaingarri iraunkorren sentsibilizazio kanpainatan, Gipuzkoako hainbat herritan lan egin ostean (Legazpi, Zarautz, Urretxu, Beasain, eta abar.).

Kontuan hartuta Ibarra Udalak zenbateko hori 1.0000.226.431.00.06 2016 aurrekontu partidatik finatziatu dezakeela, besteak beste, merkataritza sustatzeko helburu duen ekintza den aldetik.

Kontuan hartuta Udalaren asmoa dela apaingarri iraunkorrak landuko dituen mahai bat osatzea, non Udalaz gain, Arazi aholkularitzak, Uzturpe Ikastolak eta Merkatarik Elkartek parte hartuko duten.

2016ko urriaren 10ean buruturiko Ingurumen, Merkataritza eta Nekazaritza Batzordearen irizpena kontutan izanik, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

## ERABAKIA

LEHENA: Araziren aurrekontua onartzea, guztira 3.529,38 euroko zenbatekoagatik, BEZ barne.

BIGARRENA: Kontuhartzaitzak zenbateko hori 1.0000.226.431.00.06 2016 aurrekontu partidatik ordaintzea Araziren faktura iristen denean.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri kontuhartzaitzari ematea.



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

LAUGARRENA: Erabaki honen berri Araziri ematea.

## **6.2 KANADAR PASAGUNEA UZTURRE BIDEAN**

2016ko ekainean Izaskungo baserriar talde batek Ibarra Udalarari ahoz eskatu zion Uzturreko bidean kanadar pasagune bat egitea, Uzturre goian duten ganadua bidetik behera jeistea ekiditeko. Udalak materiala jarriz gero, kanadar pasagunea eraikitzeke konpromisoa baserriar talde horrek hartu zuen.

Kontuan hartuta Ingurumen, Merkataritza eta Nekazaritza teknikariak GFAko teknikari den Iñaki Garmendia Otamendirekin hitz egin zuela 2016ko uztailaren 7an, Gipuzkoan kanadar pasagune eredu bateraturen bat onarturik ba ote zegoen jakiteko.

Kontuan hartuta GFAko teknikariak Tolosaldean eraikita dagoen kanadar pasagune baten neurriak bidali zizkiola.

Ingurumen, Merkataritza eta Nekazaritza teknikariak kanadar pasagune hori eraikitzeke materialaren aurrekontua eskatu zion Apatia industria poligonoan kokatuta dagoen Calderería Sanga S.L. enpresari, honek 2.635,38 euroko zenbatekoa aurkeztuta, BEZ barne.

Kontuan hartuta Ibarra Udalak zenbateko hori 1.0000.601.153.20.04 2016 partidatik finantziatu dezakeela.

2016ko urriaren 10ean buruturiko Ingurumen, Merkataritza eta Nekazaritza Batzordearen irizpena kontutan izanik, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

### **ERABAKIA**

LEHENA: Calderería Sanga S.L. enpresaren aurrekontua onartzea, guztira 2.635,38 euroko zenbatekoagatik, BEZ barne.





**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

**BIGARRENA:** Kontuhartzaitzak zenbateko hori 1.0000.601.153.20.04 2016 aurrekontu partidatik ordaintzea Calderería Sanga S.L. enpresaren faktura iristen denean.

**HIRUGARRENA:** Erabaki honen berri kontuhartzaitzari ematea.

**LAUGARRENA:** Erabaki honen berri Calderería Sanga S.L.ri ematea.

**BOSGARRENA:** Erabaki honen berri kanadar pasagunearen eskatzaileei (Izaskungo baserriar taldea) ematea.

### **6.3 MERKATARI ELKARTEARI DIRU-LAGUNTZA EMAN**

2016ko ekainaren 17an Merkatarri Elkarteak 1.350 poltsa berrerabilgarri ateratzea eskatu zion Ibarra Udalari, elkarteko kide bakoitzarentzat 50, plastikozko poltsen erabilera murrizteko helburuarekin herritarrak sentsibilizatzeko aldera.

Udal aurrekontuak ikusita, non 2016ko Aurrekontu Orokorretik 5.000 euro bideratzen diren Merkatarri Elkarteari diru laguntza zuzena emateko.

Ikusita Idazkaritzako txostena diru laguntza zuzena emateko prozedurari buruzkoa eta aplikatu beharreko Legediari buruzkoa, eta 2016ko urriaren 10eko datarekin, kontuhartzaitzaren txostena igorri zen udal aurrekontuetan partida nahikoa zegoela ziurtatzen zuena.

Laguntzen duen dokumentazioa aztertuta (hitzarmena) eta idazkaritzaren txostena ikusita.

2016ko urriaren 10ean buruturiko Ingurumen, Merkataritza eta Nekazaritza Batzordearen irizpena kontutan izanik, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

### **ERABAKIA**

**LEHENA:** Ibarra merkatarri elkarteari 5.000 euroko diru laguntza ematea, Korporazio honen gastuen aurrekontuak aplikatuta, eta dagokion Hitzarmenean



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

formalizatzea, non zehazten diren diru laguntzaren hartzailearen betebeharrak eta konpromisoak diru laguntza aplikatzeko eta justifikatzeko.

**BIGARRENA:** Erabaki honen berri kontuhartzaitzari ematea.

**HIRUGARRENA:** Erabaki honen berri merkataritza elkarteari ematea, hitzarmena sinatzea eskatzeko.

#### **6.4 EUSKAL HERRIA 8 KALEKO PARKEAREN BERRIKUNTZAN DAUDEN ZUHAITZEN INGURUKO ERABAKIA**

Kontuan hartuta Obra eta Zerbitzuak departamentutik Euskal Herria 8 kalean dagoen haur parkea berri nahi duela, egun egoera kaxkarrean aurkitzen baita.

Kontuan hartuta haur parke horretan Cupressus Leylandii (Cipresa) motako zuhaitz bat aurkitzen dela, nahiko handia, haur parkean enbarazu egiten duena.

Kontuan hartuta, halaber, Euskal Herria 8ko etxebizitzaren kontra dagoen lorategia mantentzea zaila dela, haur parkean ibiltzen diren umeak bertara sartzen baitira eta maiz zaborrez beteta uzten baitute.

2016ko urriaren 10ean buruturiko Ingurumen, Merkataritza eta Nekazaritza Batzordearen irizpena kontutan izanik, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

#### **ERABAKIA**

**LEHENA:** Cupressus Leylandii (Cipresa) motako zuhaitza Euskal Herria 8 kaletik kentzea.

**BIGARRENA:** Euskal Herria 8 etxebizitzaren kontra dagoen lorategia kentzea, haur parkea handitzeko aprobetxatuz.

**HIRUGARRENA:** Erabaki honen berri Obra ta Zerbitzuak departamentuari ematea.



IBARRAKO UDALA  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

**ZAZPIGARRENA:**

**7. 2016KO URRIAREN 10EAN BURUTURIKO OBRA ETA ZERBITZUKO  
BATZORDEAREN INGURUKO ERABAKIEN ONARPENA**

**7.1 IBAI GAIN 4KO LOKALERAKO BEROKUNTZA, ITURGINTZA ETA  
AIREZTAPEN INSTALAKUNTZAREN ESLEIPENA ONARTZEA**

Ibai Gain 4ko lokala insonorizatuta dago eta barne banaketa eginda dago. Orain berokuntza, iturgintza eta aireztapen instalakuntzak egin behar dira. 3 enpresei eskatu zaie aurrekontua:

CLIMAXVIC, S.L.....	20.779,00 € + %21 BEZ = 25.142,59 €
FONTANERIA ZABALETA , S.L.....	21.119,99 € + %21 BEZ = 25.555,19 €
INERGETIKA .....	17.467,00 € + %21 BEZ = 21.135,07€

Inergetikaren aurrekontua besteak baino merkeagoa da ez duelako errekeradorearen aurreikusitako. Climaxvic enpresak aurkeztutako aurrekontuaren arabera errekeradorearen prezioa (materiala eta muntaia) 3.825,61 € da, beraz, Climaxvic enpresaren aurrekontua errekeradorerik gabe 16.953,39 € + %21 BEZ = 20.513,60 € izango litzateke, Inergetikarena baino merkeago.

Inergetikari eskatu zaio partida horren aurrekontua bidaltzea baina ez du aurkeztu.

2016ko urriaren 10ean buruturiko Obra eta Zerbitzuetako Batzordearen irizpena kontutan izanik, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

**ERABAKIA**

**LEHENENGOA:** Ibai Gain 4ko lokaleko berokuntza, iturgintza eta aireztapen instalakuntza Climaxvic S.L. enpresari esleitzea 25.142,59 €-tan eskaintza hoberena delako.1 0000.601.153.20.03 2016 partidatik finantzatu da.

**BIGARRENGOA:** Erabaki honen berri emango zaio Kontuhartzailletza sailari eta eskeintzak aurkeztu dituzten enpresei



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

## **ZORTZIGARRENA:** **8. GALDE-ERREGUAK**

### **8.1 IDAZKARITZARI ESKAERA**

EAJ-ko zinegotziek Idazkariari honako eskaera hauek egiten dizkiote:

1. Zinegotziei igortzen zaizkien dokumentuak (sarrera orokorrean erregistratu behar direnak alegia), mesedez sarrera zenbakiarekin igortzea. Azken hilabeteetan dokumentuak zenbakitu gabe igortzen dira eta ez zaie normala iruditzen.

Idazkariak, Udalean sartzen diren dokumentu denek sarrera zenbakia dutela agertzen du. Ez du ulertzen zergatik igorri diren dokumentu horiek ez duten sarrera zenbakirik eta lan horien arduradunari jakinaraziko diola adierazten du. Egiten ez bada, egin dadin eskatuko du.

2. Dokumentuei dagokionez, Tokiko Gobernu Batzordeko kideek adierazten dute Tolosako Udalean erabiltzen den prozedura martxan jartzea egokiena dela uste dutela. Hau da, dokumentu bati sarrera eman, ondoren originala dagokion teknikoari igortzea eta azkenik kopia beste teknikari bati igortzen bazaio kopia horretan adierazi beharko da originala zein teknikariri igorri zaion (horrela egun dauden arazoak konponduko dira; bi teknikari desberdinek espediente berdina irikitzea ekidingo da modu honetan).
3. EAJko zinegotziek eskatzen dute herritarren eskaerei sarrera eman eta beraie igortzea (egun ez baitaie bidaltzen dokumentazio hori eta askotan herritarren galderei ezin die erantzun ez baitakite idatzia aurkeztu dutela).
4. Espazio publikoaren erabilera erregulatzeko ordenantza egikaritzea eskatzen dute.

Guztia kontutan izanik, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

**ERABAKIA**

**BAKARRA:** Onartzea EAJ-ko zinegotzien eskaerak eta erabaki hau jakinaraztea sarrerako pertsonalari eta Idazkaritzari.



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

Eta bestelako aztergairik ez dagoenez, goiburuko eguneko hamabiak direnean, lehendakariak bilera amaitutzat ematen du eta nik, bitarteko idazkari naizen honek, akta hau egiten dut, bertan esandako eta erabakitako guztiaren berri jasoz.